



Gizarte Hezkuntza

5. MODULUAREN GIDA

GIZARTE DINAMIZAZIOA ETA
IKUSPEGI KOMUNITARIOA



2018-19

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| AURKEZPENA | 3 |
| MODULOKO GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK | 4 |
| 5. MODULUAREN EGITURA | 5 |
| MODULUKO DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ) | 5 |
| BAKARKAKO LANA | 6 |
| LEHENENGO FASEA | 7 |
| BIGARREN FASEA..... | 7 |
| HIRUGARREN FASEA..... | 8 |
| MDJREN EBALUAZIOA (PROZESUA, ADIERAZLEAK, IRIZPIDEAK ETA NOTA) | 8 |
| IRAKASGAIEN ZERRENDA: BAKOITZAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK ETA EDUKIAK | 10 |
| WEB ORRIETARA ETA ALDIZKARIETARA ESTEKAK | 13 |

AURKEZPENA

5. modulua titulazioko hirugarren mailako lehen lauhilekoan lantzen da. Modulua ikuspuntu integratzaile bat ematen du komunitatearen eta iraunkortasunaren ikuspegitik, komunitate garapenean eragiteko eta gizarte kohesioa sustatzeko gai den jardun profesionalerako beharrezkoak baida. Ikasleek gizarte testuinguruak eta sareak sortzeko gaitasuna lortuko dute, komunitatearen eta gizarte hazkundera sustatze aldera iraunkortasunaren testuinguruan. Hala nola, Garapen Iraunkorrerako Helburuek (NBE, 2015), gizarte dimentsioa, dimentsio ekonomikoa eta ingurumenaren dimentsioa barne hartzen dituztenek, testuinguru zabala osatzen dute modulu honen lanketarako.

Horregatik, ekintza komunitarioa hartuko dugu abiapuntutzat. Ekintza komunitarioa ikasketa eta praktiken esparru konplexua da, elkarren artean gurutzatzen baitira disziplinak eta ikasketak, mota askotako ikuspegi teoriko-praktikoak baititu. Elkargune bat da era askotako (bai konfigurazioari bai funtzioei dagokienez) pertsona, talde, entitate eta erakundeentzat.

Ekintza komunitarioaren helburua pertsonen eta komunitateen bizitza alderdi guztietan hobetzea da. 5. moduluan, ekintza komunitarioak honako erreferente hauek izango ditu: komunitate garapena, garapen iraunkorrerako hezkuntza, eta gizarte eta kultura dinamizazioa. Izan ere, ardatz garrantzitsu horietan oinarritzen da gizarte hezitzailearen lanbidea. Honez gain, modulu honetan egin beharreko kanpo praktikei esker ("Practicum I"), ikasleek testuinguru profesionaletan sartzeko aukera izango dute, testuinguru horietan esku hartzeko, eta komunitatearekin eta komunitatetik egindako lanean oinarritutako programak martxan jartzeko.

"Komunitate garapena" izeneko irakasgaiaren helburua esku-hartze programak prestatzeko gizarte ekintzari buruzko ezagutza hartzea da; batetik, komunitate harremanak sustatzeko programak, eta, bestetik, komunitatearen eta haren oinarrian dauden elkarrean inplikazio aktiboa sendotzeko programak. "Gizarte eta kultura dinamizazioan" lidergoa eta gidaritzak eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak aztertuko dira. Horretaz aparte, sakonki aztertuko da komunitate ekintzan parte hartzen duten gizarte eragileek zer-nolako ezagutza duten, eta nola sustatzen eta lantzen dituzten trebetasun horiek. "Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza" irakasgaiaren, iraunkortasuna ardatz hartuko da ongi txukundutako eta balioz jantzitako mundu baten beharra adierazteko; betiere, munduaren inguruko behaketa kritiko bat landuko da, horrek zentzua ematen bai die bidezkoago eta solidarioago den mundu bat eraikitzeke ekintzei.

Moduluko prestakuntzari dagokionez, gizarte ekintzaren arloko parte-hartzearekin eta konpromisoarekin lotutako gaitasunak landuko dira. Horretarako, gizarte dinamizazioko prozesuak, harremanetan eta lankidetzan oinarritutako metodologiak, eta natura eta gizarte ingurunean integratutako gizakiaren inplikazioa landuko dira, Garapen Iraunkorrerako 17 helburuen markoan. Helburua gizarte errealitatea eta jardun profesionala bera aztertzeke beharrezkoa den prestakuntza kritikoa sustatzea da iraunkortasunaren klabetik.

Gaitasun espezifikoak eta zeharkakoak lantzeko, ikasleak egoera espezifiko batzuetatik abiatuko dira, eta ekintza profesionala eta soziala hobetzeko proposamenak aztertu, interpretatu eta landu beharko dituzte, ikuspegi kritiko batetik. Hori guztia txostenetan eta beste dokumentu batzuetan islatuko da: ikasleek, lauhilekoan landutako ekintzetan oinarrituta, beren hausnarketa prozesuen berri emango dute. Dokumentu horiek ahoz eta/edo idatziz aurkeztuko dituzte.

MODULO KO GAITASUNAK eta IKASKETA EMAITZAK

Gure ustez, gaitasunak lantzeak zera dakar berekin: "ikasketa orekatu eta konplexu bat, egitura kognitibo, intelektual eta emozional jakin batzuk mugiarazten dituen eremu profesionaleko eta/edo pertsonaleko arazo edo egoerak konpontzeko". Ikasketa emaitzen arabera ikus daiteke zer neurritaraino lortzen den gaitasun hori.


Honako gaitasun eta ikasketa emaitza hauek landu nahi dira 5. moduluan:

| GAITASUNAK | IKASKETA EMAITZAK |
|--|---|
| 5G1. Ikasleek, testuinguru profesionala edozein izanik ere, gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen oinarri teorikoetan oinarritutako argudioak erabiltzea, ahoz eta/edo idatziz. (CG. 1 eta CG. 6) | <ul style="list-style-type: none"> • Idatziz jasotzea egoera errealetan esku hartzeko prozesuetan sortzen diren zalantzak edo gorabehera arazotsuak. • Ikasleek hezkuntza erantzunak lantzea ikasgelan zein praktika erakundean aurkituko dituzten egoerei buruz. |
| 5G2. Ikasleek gizarte sare eta proiektuetako komunitate ekintzari buruzko gogoeta egitea, hura interpreta-tzea, eta hobetzeko proposamenak egitea, egoera errealetan oinarrituta, eta, horretarako, gizarte eta hezkuntza eragile, prozesu eta baliabideak aintzat hartzea. (CG. 3, CG. 6 eta CG9) | <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte sare eta proiektuak garatzeko proposamenak egitea komunitate ikuspegi batetik. • Idatzizko dokumentu batean islatzea moduluan zehar eraikitako ezagutza teoriko eta praktikoak, praktika erakundearen proiektu edo programa bat komunitate ikuspegitik aztertuz. |
| 5G3. Ikasleek gizarte dinamizaziorako estrategiak proposatzea lankidetzaz garatzeari begira, gizarte partaidetza eta komunitate garapena bultzatzeko; betiere, kontuan hartuko dituzte oinarri etikoak, genero ikuspegia eta gizarte erantzukizuna. (CG. 4, CG. 5 eta CG. 8) | <ul style="list-style-type: none"> • Egoerak eta arazoak sistematikoki konpontzea, jarrera etikoa eta deontologikoa hartuz eta genero ikuspegia kontuan hartuz. • Itxurazko egoeretan eta egoera errealetan praktikan jartzea partaidetza eta lan kooperatiboa bultzatzeko beharrezkoak diren gizarte trebetasunak. |
| 5G4. Ikasleek errealitatea interpretatzea gizarte eta ingurumen problematikaren ikuspegitik, premia errealak identifikatzeko eta iraunkortasuna oinarritzat hartuz proposamen hezitzaileak egiteko. (CG. 3 eta CG. 6) | <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzako komunikazio harremanaren funtsezko oinarriak erabiltzea lanak aurkezteko eta prestakuntza prozesu interaktiboa gauzatzeko. |
| 5G5. Ikasleek ahoz eta jendaurrean azaltzea gizarte eta hezkuntza arloko gaiei buruzko ideiak eta argudioak, baliabide didaktikoen laguntzaz. (CG8) | <ul style="list-style-type: none"> • Moduluan landutako gaiekin lotutako gogoetak eta ideiak ahoz azaltzea ikasgelan eta erakundeko taldean. |
| 5G6. Ikasleek txosten idatziak prestatzea, argudio egokiak erabilia eta ezarritako irizpide formalak baliatuta. (CG9) | <ul style="list-style-type: none"> • Dokumentu eta txosten zientifikoak aurkeztea irakasgaietako eta Practicum leko gai garrantzitsuei buruz. |
| 5G7. Ikasleek jarrera aktiboa eta arduratsua izatea ikasketa jardura eta lanetan. (CG10) | <ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartze eraikitzailea eta konprometitua izatea taldearen/ikasgelaren eta praktika erakundearen dinamikan. |

| | |
|--|---|
| <p>5G8. Ikasleek jarrera arduratsua eta etikoa izatea lan taldeetan, eta eragina izatea lan taldeen gaitasunetan eta zailtasunak hautemateko eta konpontzeko zereginetan. (CG4, CG5, CG10)</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Taldeen barne funtzionamenduari buruzko ezagutza kolektiboa eraikitzea. • Ebaluaketaren inguruko tresnak era egokian erabili (autoebaluaketa, koebaluaketa...) |
|--|---|

5. MODULUAREN EGITURA

Moduluaren egiturak aipatutako lau irakasgaiak eta MDJ (Moduluaren Diziplinarteko Jarduera) gauzatzea barne hartzen du, honako grafiko honetan ikus daitekeen moduan:



MODULUKO DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ).

Modulu honen MDJ honetan datza: Prozesu analitiko bat egin beharko da (idatzizko txosten batetan islatuko dena) jarraibide egokiak eraikitzeko. Jarraibide hauek Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguru espezifiko batetan esku hartze berri bat edo existitzen den baten inguruan hobekuntza proposamen bat egiteko oinarri bezala erabiliko dira.

Analisi hau aurrera eramateko esku hartze sozio-komunitarioko praktika onen datu base hau erabiliko da: (habitat.aq.upm.es/busqueda/bestpr.html)

Irakasgaien praktiken testuinguruan egingo da lan eta irakasleak laguntzaile funtzioa izango du irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar. MDJko talde bakoitzak tutore bat izango du.

Derrigorrezkoa da eta 3 kreditu balio ditu (66 lan ordu ikasle bakoitzak). Egiturak gelako praktikak, taldeen bakoitzarekiko tutoretzak eta ikasleen lan autonomia konbinatzen ditu.

Lehenengo astean hasiko da lanean eta prozesuaren planteamendu teorikoetan eta metodologikoetan sakonduko da. MDJren jarraibide arauak ere azalduko dira saio hauetan.

MDJ-k **indibidualki** landu beharreko lehenengo ataza bat du.

MDJ-ko lehenengo saioa baino lehen, bakoitzak bakarka egin beharreko derrigorrezko lana

BALIABIDEAK

Datu base digitalak

- "Ciudades para un futuro más sostenible":
<http://habitat.aq.upm.es/busqueda/bestpr.html>
- "Portal de economía solidaria":
http://www.economiasolidaria.org/buenas_practicas_09
http://www.economiasolidaria.org/buenas_practicas_colectivas eta

• Dokumentuak (irakasgaien egeletan eskuragarri)

- Beste praktika on batzuk aurkitzeko materiala:
 - Hegoalde eta Iparraldeko Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esperientzien gida.
- *Praktika on bat zer den eta praktika onak aukeratzeko erabiltzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa:*
 - - "Ciudades para un futuro más sostenible" (CF+S) izeneko liburutegi digitaletik ateratako kontzeptua eta praktika ona aukeratzeko irizpideak.
 - - "Listado de indicadores de Detección de Buenas Prácticas en Procesos Participativos".
 - - "Las Buenas Prácticas en la atención a la infancia vinculada a procesos migratorios".

ATAZA

1. *Emandako dokumentazioa irakurri.* Bereziki CF+S liburutegi digitaletik ateratakoa, gure erreferentziazko datu basea izango baida.
 - Gure esparru profesionalaren barruan, praktika onaren definizioa egitea, baita norberaren ustez, garrantzitsuenak diren hamar irizpideen zerrenda eta bakoitzaren definizioa ere bai.
2. *Praktika onen datu base digitaletik:*
 - Kategoria bat aukeratu ("descripción larga" aukeratuz)
 - Ateratzen diren esperientzien zerrendatik hiru aukeratu.
 - Behin aukeratuta, laburki deskribatu (300 hitz gehienez esperientzia bakoitza) eta haiekin lotutako esteka gehitu.
3. *Lan hau "Komunitate Garapena" irakasgaiaren egelara igo behar da 2018ko urriaren 31 baino lehen.* Ez dira lanak hartuko data horretatik aurrera eta lan hau egiten ez duenak nota baxuago izango du MDJko lanan (-0,2, 1,5etik)

BIBLIOGRAFIA lagungarria ataza honetarako

Cabrera, P (dir), Magesini, G y López, J.A. (2002). *Un techo y un futuro. Buenas prácticas de intervención social con personas sin hogar*. Madrid: Icaria Editorial

Diputación Foral de Álava (2005). *Guía de actuación para los servicios sociales dirigidos a la Infancia en el territorio Histórico de Álava*. Gasteiz-Vitoria: Servicios de publicaciones de la Diputación Foral de Álava. Departamento de Asuntos sociales

Diputación Foral de Bizkaia (2005). *Manual de intervención en situaciones de desprotección infantil*. Bizkaiko Foru Aldundia. Diputación Foral de Bizkaia- Gizarte Ekintza Saila. Departamento de Acción Social.

FEAPS (2006). ¿Qué es una buena práctica? Extraído de www.feaps.org/calidad/buenas_practicas_que.htm

FEAPS (2000) (Manuales de buenas prácticas para diversos ámbitos). Disponibles en: www.feaps.org/archivo/publicaciones-feaps/libros/manuales-de-buenas-practicas.html

Fundación Acción Pro Derechos Humanos. Cuadro de normas y mecanismos para la Protección de los Derechos Humanos. Extraído de www.derechoshumanos.net/derechos/.

Talde lanan garatuko den prozesua fase desberdinak izango ditu:

Lehenengo fasea

- Hizkuntza amankomuna eraiki eta fundamentazio marko teorikoa sortu, ekintza komunitarioaren eta praktika onen adierazleen inguruan.
- Kategoria bat hautatu eta analizatu, gutxienez, kategoria horretan dauden bost esperientzia.
- Identifikatu, deskribatu eta justifikatu esperientzia bakoitzaren praktika onen adierazleak.
- Aukeratutako bost esperientzien analisi konparatiboa egin eta bi sarrerako taula batetan aurkeztu, adierazlea zergatik duen ala ez duen argudiatuz.
- Esperientzia bat aukeratu, analisi konparatibotik justifikatuz.

Lehenengo txostena: Marko Teorikoa, analisi konparatiboa eta aukeratutako esperientziaren deskripzio eta justifikazioa. **2018ko azaroak 15**

Bigarren fasea

- Aukeratutako esperientzia martxan jarri edo moldatu ahal den Euskal Herriko herri /hiri/auzo bat aukeratu, aukeraketa arrazoituz.
- Testuinguru horretarako proposamen zehatza diseinatu, berau aurrera eramateko beharrezkoak diren jarraibideak.

Bigarren txostena: testuinguru bat aukeratu eta proposamena diseinatu. **2018ko abenduak 13**

Hirugarren fasea

- Ahozko aurkezpena tutorea eta kideen aurrean.
- Azken txostenaren entrega.

Txostenaren egituraren inguruko argibideak Txostena era argudiatuan eta hausnarketa gisa idatzita egon behar du. Jarraitutako prozesua, hartutako erabakiak eta guzti hauen justifikazioa bilduko ditu. 12 eta 15 bitarteko luzera izango du,

portada, aurkibidea eta eranskinak kontutan hartu gabe. Txostenak arau akademikoak errespetatu behar ditu eta taldekide guztiek lan osoa gainbegiratu behar dute zehatz-mehatz entregatu baino lehen. Egitura hau izan dezake:

- Portada
- Aurkibidea
- Sarrera: Lana moduluan txertatu eta atal desberdinen laburpena egin.
 1. Marko teorikoa
 2. Hautatutako kategoria eta aukeratutako esperientziak
 3. Esperientzia bakoitzaren praktika onen adierazleak
 4. Aukeratutako bost esperientzien analisi konparatiboa, praktika onen adierazleak erabiliz
 5. Esperientzia bat aukeratu, analisi konparatibotik justifikatuz
 6. Testuinguru zehatzaren deskribapena, aukeraketa arrazoituz.
 7. Testuinguru horretarako proposamen zehatza diseinatu baita berau aurrera eramateko beharrezkoak diren jarraibideak egin ere
- Bibliografia

Hirugarren txostena: Txosten finala. Lauhilabeteko azken astean

MDJren Ebaluazioa (prozesua, adierazleak, irizpideak eta nota)

Gaitasunen bidezko irakaskuntza-ikasketa planteamenduan, beharrezkoa da gogoraraztea gaitasunen balorazioa eta lan baten menperatze mailaren adierazleen balorazioa ezin direla modu independentean egin. Izan ere, gaitasun kontzeptua modu integratuan ulertzen dugu: gaitasuna zeregin konplexu bat konpontzeko prozesua da. Beraz, ez ditugu gaitasunak ebaluatu behar, ikasketa prozesuaren kalitatea eta ikasleek (taldeek) egoera edo arazo bat konpontzeko egindako produktuaren kalitatea baizik. Horretarako, informazio hori biltzea ahalbidetzen duten adierazleak erabiliko ditugu, ondoren horiek egiaztatzeko eta baloratzeko.

Azken finean, ebaluazioa jarraia eta formatiboa izan behar dela uste dugu. Prozesuan zehar, bai ikasleek bai irakasleek (lankidetzan jardunez) adierazleak eta ebidentziak erabiliko dituzte lana nola gauzatu ikusteko. Era berean, ikasketen ahulguneak zehazteko eta horiek gainditzeko egin beharreko hausnarketa ezartzeko informazioa eskuratuko dugu. Modu horretan, ikasketak, ditugun zailtasunak eta horiei aurre egiteko moduak aztertuta, ikasketa prozesua indartuko dugu eta prestakuntza prozesu honetan funtsezkoak diren hainbat alderdi hautemango ditugu (horietako batzuk aurreikusi gabekoak).

MDJ gauzatzeko saioen egiturak ekintza planaren diseinuaren eta arazoarentzako konponbidearen aurkezpenen artean prozesua aztertzeko eta analizatzeko une bat sartzea ahalbidetzen du, ikasketa indartzeko helburuarekin. Horrek prestakuntza prozesuaren segimendua egiteko aukera ematen digu, irakaskuntza-ikasketa prozesua berriro bideratzea ahalbidetuko digun informazio baliotsua biltzeko.

Hona hemen aipatutako adierazleak:

| | |
|------------------------------|---|
| Idatzizko adierazpena | <ol style="list-style-type: none">1. Baieztapen idatziak, marko teorikoetan oinarritzen ditu.2. Ideien koherentzia eta kohesioa adierazten du idazkera zehatz eta egokiaren bidez.3. Txostenaren aurkezpen egokia erakusten du (aurkibidea, orrialdeak, sarrera, garapena eta |
|------------------------------|---|

| | |
|-------------------------------------|--|
| | ondorioak). 4. Bibliografia eta oin-oharrak sistema estandarretan ematen ditu |
| Ahozko espresioa | 5. Azalpenetan ideiak modu logikoan ordenatuta eta egituratuta daude. 6. Ahozko erregistro egokia darabil, ahots tonu eta hitz egiteko era ulergarri eta argiaz baliaturik. (gorputz-hizkera egokiaz lagunduta) |
| Talde lana eta parte hartzea | 7. Zereginak eskatutako denboran betetzen ditu. 8. Ekipoan aktiboki parte hartzen du taldearen topaguneetan, informazioa, ezagutzak eta esperientziak partekatuz. |
| Heziketa-jarduera etikoa | 9. Azterketa eta ebazpen proposamena, Gizarte Hezkuntzarako jarduera-kodearen gako etikoetan oinarrituz egiten da |

Honako tresna hauek erabiliko ditugu: Hausnarketa-ekintza prozesuari buruzko txostenak, Autoebaluazioari eta koebaluazioari buruzko txostena, Ahozko aurkezpena eta Azken txostena

Txostenaren entregatze eguna tutore bakoitzaren irakasgaiaren egokitutako eguna izango da. Txostenaren ahozko aurkezpena lehenengo lauhilabetearen azken astean burutuko da.

Plagioa: ezin da beste norbaitek egindako lana, edo horren kopia edo imitazioa, norberarena izango balitz bezala aurkeztu. Ikasleak aipua egiteko arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioaren susmoak txostena ez onartzea suposa dezake, eta beraz, MDJ ez gainditzea.

Kalifikazio Sistema

Taldearen irakasleak izango du MDJren kalifikazioaren gaineko erantzukizuna, eta moduluko gainerako irakasleen iritzia eskatu ahal izango du. MDJ gainditzea ezinbestekoa da irakasgaiak kalifikatzeko. Gida honetan azaldutako pausoak betetzen dituzten MDJk soilik hartuko dira ontzat.

MDJk 1,5eko kalifikazioa izango du gehienez ere; kalifikazio hori irakasgaietan lortutakoei gehituko zaie.

Moduluko Diziplinarteko jarduera (MDJ) egiteaz salbuetsita

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute Moduluko Diziplinarteko Jarduera (MDJ) egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
2. Graduako ikasleek MDJ egin beharko dute, baldin eta, gutxienez, modulu bateko hiru irakasgaietan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute egin beharrik izango.
3. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta

edo gainditu gabe dituztelako) irakasgai gehien egiteke dituzten MDJ egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute MDJ.

4. MDJ egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10etik emango da, MDJren % 15 aplikatu gabe.

MDJren ebaluazio jarraituari uko egitea

MDJren ebaluazio jarraituari uko egin beharko dion ikasleak urriaren 10a baino lehen moduluko koordinatzaileari idatziz jakinarazi beharko dio.

Ikasle honek MDJ ebaluatzeko moduloko irakasle taldean adostutako banakako froga bat egin beharko du. Moduloko koordinatzaileak edo honek izendatutako irakasle batek froga honen ezaugarriak jakinaraziko dizkio.

IRAKASGAIEN ZERRENDA: Bakoitzaren kompetentzia espezifikoak eta edukiak

Irakasgai bakoitzaren metodologia eta ebaluazioa zehatzak GAUREn argitaratutako irakasgaien gidetan kontsulta daitezke.

1. KOMUNITATE GARAPENA Kompetentzia espezifikoak

1. Esku-hartze sozio-hezitzailearen teoriak eta printzipioen inguruan hausnartu eta horiek interpretatu. IE-1: -Ikaslegoa, oinarri teorikoen analisiaren bitartez, ondo komunikatutako idatzizko hausnarketa bat egiteko gai izango da, modu egokian egituratua eta argudiatua irakasgaiaren gai nagusien inguruan: ekintza komunitarioa, komunitate garapena, parte-hartzea, herritartasunaren eraikitzea, deszentralizazioa, etab.

Gai zerrenda

| | |
|---|---|
| 1. Komunitatea: Bere gaurkotasuna eta hezkuntza esparruarekin duen erlazioa | Komunitatea: aurrekariak eta gaurkotasuna. Komunitatearen ezaugarriak. Komunitatearen definizio batzuk gaur egun eta hezkuntza eremuarekin duen lotura. Komunitatearen papera. Ekintza politikoa komunitatetik. "Komunitarioa" ren berpiztea. |
| 2. Garapen Komunitarioaren sarrera | Garapen komunitarioaren oinarriko kontzeptuak. Dimentsio komunitarioaren aurrekariak. Hasiera eta gaur egungo egoera. Garapen komunitarioa gizarte eta hezkuntzako eskuhartze eraldatzaile tresna bezala. Garapen komunitarioaren praktika onak. Dimentsio hezitzailea Garapen Komunitarioan. |
| 3. Garapen Komunitarioa mundu eta lokal mailan | Garapen komunitarioa gaur egungo mundu mailan. Dimentsio globala eta lokala: globalizazioa hirien testuinguruan. Gaur egungo Ongizatearen Estatua Garapen Komunitarioaren jardura eremu bezala. Burujabetasunaren Marko Europearra. |
| 4. Garapen Komunitarioa eta udal politikak | Garapen Komunitarioa eta udal politikak. Gogoeta batzuk hiria, herritartasuna eta demokraziari buruz. Komunitatea eta udalerrria: hiriaren beharrei aurre egiteko baliabideak. Hiri hezitzaileak eta hiriaren proiektu hezitzaileak. |
| 5. Garapen Komunitarioa | Ekintza partehartzailearen onurak eta desabantailak. |

| | |
|--|--|
| eta herritarren parte-hartzea | Demokrazia ordezkaria eta demokrazia partehartzailea: gaur egungo hiritarren partehartzearen berrikustea. Partehartzea eta hiritartasuna. Gazteen partehartzea. Hiritarren partehartze proiektuak. |
| 6. Garapen Komunitarioaren metodologia | Garapen Komunitarioaren metodologiak. Komunitatearen ikerketa eta sustapenerako eredu eta estrategiak. Diagnostikoa, planifikazioa, eskuhartzea eta ebaluaketa. Esku-hartzerako klabe etikoak. |

2. GIZARTE ETA KULTURA DINAMIZAZIOA

Konpetentzia espezifikokoak

1. Elkarlana garatzeko behar diren gizarte trebetasunak erabiltzea, gizarte parte-hartzea sustatzeko eta komunitatea garatzeko; hori guztia lanbideko deontologia kodearen gako etikoetan eta errespetuan oinarriturik, eta genero ikuspegia eta erantzukizun profesionala kontuan izanik beti ere (5G3).

Gai zerrenda

| | |
|---|---|
| 1. Gizarte eta kultura dinamizazioaren kontzeptura eta esperientzietara hurbiltzea. | Gai honetan ikasgaiaren kontzeptu eta adostasun oinarriak azaltzen dira. Kontzeptuak: dinamizazioa, komunitate-garapena, parte hartzea, suspertze soziokulturala, demokrazia, hiritartasuna, konpromisoa. |
| 2. Gizarte eta Kultura Dinamizazioaren praktika. | Gai honetan gizarte eta kultura dinamizazioa aztertuko dugu ikuspegi teoriko-praktikotik. Gaur egungo azterketa soziala eta kulturala. Dinamizaziorako egitasmo mugiarazleak: ezaugarriak eta hezitzailearen balizko jarduerak. |
| 3. Suspertze soziokulturala: esku-hartze eremuak eta prozesua. | Kasu azterketaren begiradapetik aztertuko dugu suspertze soziokulturala. Suspertze soziokulturalaren prozesua. Ikerketa eta suspertze soziokulturala. Aldaketa prozesuak eta aldaketak sortzen dituzten teoria zein ekintzen azterketa. |
| 4. Praktika onak Gizarte eta Kultura Dinamizazioan: Egitasmo sozialak eta sormen kulturala. | Gai honetan komunitatea barruko esperientzia eta proiektu praktikoak landuko dira ikuspegi sozio-komunitarioaren begiradapetik: aldaketa soziala, kudeaketa konpartitua, praktika eraldatzaileak, gizarte multikulturala, belaunaldien arteko gizartea, gizarte berdinzaleak. |
| 5. Gizarte hezitzaileen funtzioan dinamizazioan eta garapen komunitarioan. | Lidertza demokratikoaren inguruko hausnarketa bultzatu nahi da, eta aztertu zer nolako ondorioak dakarren gizarte hezitzailearen lan eremuan: talde dinamizazioan, historia sortzen duen hiritarren parte-hartzea. Lidertza demokratikoa aldaketa prozesuetan. Gizarte hezitzailearen ekintzen eragina. |

3. IRAKASGAIA: GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZA

Konpetentzia espezifikokoak

1. Ingurumenaren ikuspegitik eta ikuspegi sozialetik errealitatea interpretatu beharizan errealak identifikatzeko eta errealitate horiek hobetuko lituzketen proposamen hezitzaileak egiteko. IE-4: Ikasleek gai dira proposamen hezitzaileak identifikatu eta hobetzeko, lanbidearekin lotutako ideiak modu egokian adieraziz.

Gai zerrenda

| | |
|---|---|
| 1. Ingurumen arazoak, giza arazoak. | Munduko problematikaren ezagutza, bai gure inguruneari, bai planetari dagokiona, eta bion arteko harremanak: tokikoa eta globala. Gaur egun gure gizartean indarrean den garapen ereduaren mugak |
| 2. Garapen iraunkorraren kontzeptua | Garapen iraunkorraren kontzeptua eta hari buruzko ikuspegiak |
| 3. Ekofeminismo | Ekofeminismoa, bi ikuspegi kritikoren lokarri: ekologismoa eta feminismoa. Aukera etiko unibertsal bat XXI. menderako. |
| 4. Ingurumen hezkuntza edo garapen iraunkorrerako hezkuntza | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta Ingurumen Hezkuntzaren historia eta bilakaera. |
| 5. Garapen iraunkorrerako hezkuntza: gizarte aldaketarako tresna bat. | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren helburuak eta xedeak, eta gizarte hezkuntzaren helburu eta xedeekiko harremana. Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren ikuspegiak. Herritarren partaidetzaren eta komunitate garapenaren garrantzia, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta Gizarte Hezkuntzaren metodo eta helburu gisa. |
| 6. Ingurumen hezkuntzako gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzerako testuinguruak | Ingurumen ikuspegia txertatzea Gizarte Hezkuntzaren garapen profesionalean. Ingurumen hezkuntzaren programak eta ekipamendu espezifikoak. Gaur egungo gizarte hezitzaileek ingurumen hezkuntzaren arloan duten egoerari buruzko azterketa, eta etorkizuneko ikuspegieng inguruko gogoeta. |

4. PRACTICUM I

Konpetentzia espezifikoak

1. Gizarte Hezkuntzako lan testuinguruetan esku-hartu, kontuan izanda diziplina desberdinetako oinarri teoriko eta praktikoak, erantzukizun eta oinarri etikoetatik.
2. Ezagutza eraiki lankidetzan; ez soilik "jakiteaz" eta "egiteaz", eta bai, batez ere, "izateaz" eta "izan behar izateaz", betiere praktika etengabe aztertzearen bidetik.
3. Gizarte Hezkuntzako erakundeetan lanaz eta kulturaz argudiatu, hausnartu eta baloratu ahozko edo idatzizko txostenak eta beste adierazpen-molde batzuk erabiliz
4. Diziplina anitzeko eta erakunde anitzeko taldeen barruan lankidetzan aritu eta elkarri eragin

Gai zerrenda

Practicum I irakasgaiak mundu profesionalarekin lehen aldiz harremanetan jartzeko aukera ematen du. Gizarte eta hezkuntza arloa ezagutzea du helburu; zehazki, erakunde, jendegune edota programen ezaugarriak ezagutzea, eta kasuan kasuko tresna profesionalak erabiltzen ikastea, behaketa parte-hartzailearen eta esku-hartzearen bitartez, gizarte eta hezkuntza errealitate jakin batean kokatuta. Ikasleek, unibertsitate irakasleek, eta gizarte eta hezkuntza esparruko profesionalak lankidetzaz jardungo dute lan saioetan. Ikasleek hezkuntza testuinguruak ezagutuko dituzte, eta gizarte hezkuntzako profesionalak zer funtzio betetzen duten ikusiko dute. Arreta berezia emango diegu alderdi hauei:

- Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko esparruen ezaugarriak (testuingurua, zer programa eskaintzen eta eskatzen diren, biztanleria, eta metodologia profesionala).

- Gizarte hezkuntzako proiektuak/programak, erakundeak eta zerbitzuak diseinatzea, lantzea eta ebaluatzea.
- Garapen profesionalaren arloko berrikuntza.
- Komunitate ikuspegia.

Practicum honi dagozkio informazio guztia, Eskolako web orrian argitaratuta dagoen Practicum laren gidan aurki dezake.

<http://www.ehu.es/eu/web/irakasleen-ue-bilbao/practicum-gizarte-hezkuntzako-gradua/gidak>

WEB ORRIETARA ETA ALDIZKARIETARA ESTEKAK

Web Orriak

| | |
|--|--|
| <p>Alboan. www.educacion.alboan.org/</p> <p>Amnistía Internacional: www.es.amnesty.org/index.php.</p> <p>Blog de Educación Social. www.educablog.es/category/diario-de-un-educador/</p> <p>Centro de Recursos Documentales e Informáticos (CREDI). www.oei.es/forms/suscripciones/credi_formulario.php</p> <p>CENEAM: www.magrama.gob.es/es/ceneam/quienes-somos/www.ecoportal.net/</p> <p>Comunidad de Educación no formal: www.xmarks.com/site/educalia.educared.net/edu.jsp/%3Fidioma=es</p> <p>Comunidades de aprendizaje: utopiadream.info/ca/</p> <p>Década de la Educación por la Sostenibilidad: www.oei.es/decada/</p> <p>Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco: www.gizartelan.ejgv.euskadi.net</p> <p>Diputación Foral de Bizkaia: www.bizkaia.net</p> <p>Directorio de Entidades y Centros de Serv. Soc. del Gobierno Vasco. www.direktorioa.net</p> <p>Emakunde: www.emakunde.euskadi.net/u72-home/es/.</p> <p>Eudel. (Berdinsarea): www.eudel.net/destacados/berdinsarea/.</p> <p>Federación SUSMOA susmoa.wordpress.com/.</p> <p>Fundación Pere Tarrés. www.peretarres.org/.</p> | <p>Fundación Ruy López: www.fundacionruylopez.org/</p> <p>Ingurugela: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/did7/es_2058/d7_c.html</p> <p>Ministerio de Educación y Ciencia: www.mec.es</p> <p>Observatorio de Ética aplicada a la intervención social.etica.campusarnau.org/2009/</p> <p>Organización Estados Iberoamericanos para la Educación, la Ciencia y la Cultura. oei.es</p> <p>Portal educativo del Gobierno Vasco: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net</p> <p>Proyecto INNOVA. https://sites.google.com/a/red-innova.net/web/</p> <p>Red de Ed. latinoamericanos: www.edusol.info/es/bitacora/irisfz/red-educadores-latinoamericanos-200-integrantes</p> <p>Red iberoamericana de animación sociocultural. rianimacion.org</p> <p>Sección de Catalunya de AI: www.amnistiacatalunya.org/edu/es/historia/index.html</p> <p>Unesco: www.unesco.org/new/es/unesco/.</p> <p>Unicef: www.unicef.es</p> <p>U. I. para . Conservación de la Naturaleza www.uicn.es/content/view/1/4/lang,spanish/</p> <p>Utopía y Educación: www.utopiayeducacion.com/2006/07/alternativas-pedaggicas-y-educacin.html</p> |
|--|--|

Aldizkariak

| | |
|---|--|
| <p>ANIMADOR SOCIOCULTURAL: REVISTA LATINOAMERICANA:</p> | <p>QURRICULUM. webpages.ull.es/users/revistaq/.</p> |
|---|--|

| | |
|--|--|
| <p>www.lazer.eefd.ufrj.br/animadorsociocultura/</p> <p>AULA DE INNOVACIÓN EDUCATIVA. www.grao.com/</p> <p>Boletín de investigación-acción: www.peretarres.org/investigacionaccion/index.html.</p> <p>CONTEXTOS EDUCATIVOS, publicaciones.unirioja.es/ojs-2.4.2/index.php/contextos</p> <p>CUADERNOS DE PEDAGOGÍA: www.cuadernosdepedagogia.com/</p> <p>CULTURA Y EDUCACIÓN. www.fia.es/revistas</p> <p>EL CORREO DE LA UNESCO. www.unesco.org/new/es/unescocourier/the-magazine/</p> <p>EL ECOLOGISTA: http://www.ecologistasenaccion.es/</p> <p>ENVIRONMENTAL EDUCATION RESEARCH: www.bath.ac.uk/cree/eer/index.html</p> <p>GREENPEACE: www.greenpeace.org/espana/es/</p> <p>HEMEROTECA VIRTUAL DE SUMARIOS DE REVISTAS CIENTÍFICAS: dialnet.unirioja.es</p> <p>HIK HASI hezkuntza aldizkaria. Revista de enseñanza Vasca. www.hikhasi.com</p> <p>MONITOR EDUCACIÓN. www.monitoreducador.org/</p> <p>PEDAGOGÍA SOCIAL. www.uned.es/pedagogiasocial.revistainteruniversitaria/</p> <p>PORTAL DE REVISTAS: www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca.ArticuloIU.getListas&filtro_categorias=6</p> <p>QUADERNSDIGITALS: www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca</p> | <p>REBELIÓN: http://www.rebellion.org/seccion.php?id=3</p> <p>RED DIGITAL: revista de Tecnologías de la Información y Comunicación Educativas. reddigital.cnice.mec.es/6/Portada/portada.php</p> <p>REME (Revista electrónica de Motivación y emoción). reme.uji.es/</p> <p>REMIE. Revista Multidisciplinar de Investigación Educativa. remie.hipatiapress.com</p> <p>RES. Revista de Educación Social. www.eduso.net/res</p> <p>REVISTA DE EDUCACIÓN SOCIAL. www.peretarres.org/wps/wcm/connect/peretarres_es/peretarres/home/difusio_coneixement/revistes/cnt_generic_revistes</p> <p>REVISTA DE EDUCACIÓN, www.revistaeducacion.mec.es/</p> <p>REVISTA EDUCACIÓN XX1. www.uned.es/educacionXX1/</p> <p>REVISTA ELECTRÓNICA DE HUMANIDADES, EDUCACIÓN Y COMUNICACIÓN SOCIAL. www.publicaciones.urbe.edu/index.php/REDHECS</p> <p>REVISTA ELECTRÓNICA SOBRE DERECHOS HUMANOS REVISTA IBEROAMERICANA DE EDUCACIÓN. www.rioei.org/</p> <p>REVISTA MEDITERRÁNEA DE COMUNICACIÓN SOCIAL. www.rmedcom.org/</p> <p>REVUE GENERALE DE DROIT INTERNATIONAL PUBLIQUE. www.rgdip.com/</p> <p>RIE, Revista de investigación educativa. www.um.es/depmide/RIE/</p> <p>TANTAK. Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria. www.argitalpenak.ehu.es/p291-home/es</p> <p>TRABAJO SOCIAL GLOBAL. www.tsghipatiaeditorial.com</p> |
|--|--|